

### ALKATE JAUNARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarritzat hartuta, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du G-20tik etorrira, Donostiako saihesbideko Antiguoko sarreran dagoen bihurguneko asfaltoaren egoera txarrari buruzkoa, Udalbatzaren bilkuran jorratzeko.

### JUSTIFIKAZIOA

G-20tik etorrira, Donostiako saihesbidearen Antiguoko sarreran dagoen bihurguneko asfaltoa oso egoera kezkarria dago. Zuloak, hartxintxarra eta bide-zoruaren egoera txarra, benetako arriskua dira gidarientzat Donostiara sartzeko errepide horretan, ibilgailu askok egunero erabiltzen baitute.

Gure bide-azpiegituraren mantentze-lanetan dagoen defizita kezkarria da, are gehiago kasu honetan: bihurgune oso itxia da, arriskutsua, eta galtzadaren egoera txarrak nabarmen oztopatzen du bertatik igarotzen diren ibilgailuak asfaltora behar bezala heltzea.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio G-20tik etorrira, Donostiako saihesbidearen Antiguoko sarreran dagoen bihurguneko asfaltoaren mantentze egokia egitea.

Donostia, 2022ko uztailaren 1a

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea